



ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2011ko maiatzaren 5eko 18:00etan, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

* Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik

- Iñaki Ugarteburu, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
- Carlos Alfonso, Kirol Zerbitzuko burua.
- Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.

* Gipuzkoako udalen aldetik

- Arantza Estanga, Tolosako Udalekoa.
- Ramón Mujika, Elgoibarko Udalekoa.
- Arkaitz Angiozar, Lezoko Udalekoa.
- Beatriz Mena, Villabonako Udalekoa.

* Kirol federazioen aldetik

- Juan Karlos Etxeberria, Pilota Federaziokoa.
- José M^a Iztueta, Eskubaloi Federaziokoa.
- Tetxus Barandiaran, Mendi Federaziokoa.
- Pedro Echarri, Saskibaloi Federaziokoa.
- Teresa Ortego, Judo Federaziokoa.
- Jose Angel Rial, Karate Federaziokoa.

* Ikastetxeen aldetik

- Irati Martiarena, Donostiako Zurriola Ikastolakoa.
- Garikoitz Ibarzabal, Arrasateko Arizmendi Ikastolakoa.
- Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
- Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.
- Susana Santor, Arrasate Herri Eskolakoa.

Ez etortzeagatik desenkusatu dira Javier Etxepare, Irungo Udalekoa, Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa, Edorta Badiola, Zarauzko Udalekoa, Alicia Figuroa, Kirol Egokituaren Federaziokoa, Brigitte Ibens, Gimnasia Federaziokoa, Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa, eta Iban Maritxalar, Udarregi Ikastolakoa.

Banatutako dokumentazioa

. 2010eko abenduaren 2ko bileraren akta

. 2011-2012ko jarduera programaren zirriborroa



Iñaki Ugarteburuk eskertu egin die etortzea kide guztiei, eta ongi etorria eman die berriei.

1) 2010eko abenduaren 2ko bilkurako akta onartzea.

Iñaki Ugarteburuk adierazi du aktaren bigarren puntuko laugarren paragrafoan, “kirol praktikak” dioen tokian “modalitateak” jarri behar lukeela. Aldaketa hori jaso ondoren, akta onartu egin da.

2) Kontseiluko kideak berritzeko hauteskundeetako emaitzak.

Imanolek aipatu egin ditu badoazen kideak: Eskubaloi, Euskal Pilota eta Gimnasia Federazioak, Irun eta Tolosako udalak, eta Zurriola Ikastola eta Arizmendi Ikastola ikastetxeak, eta oparitxo bat eman die ondoren; hurrena, sartzen diren berriak aipatu ditu: Mendi, Judo eta Saskibaloi Federazioak, Lezo eta Villabonako udalak, eta Udarregi Ikastola eta Arrasateko Herri Eskola ikastetxeak.

3) 2011-2012ko jarduera programaren zirriborroa.

Imanolek aipatu du dokumentua web orrira igo dutela. Hurrena gehitu du aldaketa gutxi egin direla, eta batez ere datuak eguneratu dituztela. Orain eragile guztien proposamenak jasotzeko epea zabalduko da, maiatzaren 31 arte. Proposatu du Kontseiluaren hurrengo bilera ekaineko lehen astean egitea.

4) Eskola kiroleko monitoreentzako ikastaroa.

Iñakik azaldu du azkenean martxan jarri dutela ikastaro pilotua. Ikastaroa telematikoa da, ez aurrez aurrekoa, eta antolaketari dagokionez erronka nagusia praktikak dira. Asmoa da urrirako aldundi bakoitzak deialdi ireki bat ateratzea.

Teresa Ortegok galdetu du zein den ikastaroaren helburua. Imanolek erantzun du kontua dela eskola kiroleko monitoreei gutxieneko prestakuntza bat ematea, orientazio orokor eta kirol anitzeko batez. Eusko Jaurlaritzaren borondatea da aurrerago, modalitate zehatz batzuetan, kirol bakarreko ikastaroak eskaintzea.

Imanolek, hurrena, azaldu du etorkizunean prestakuntza hori eskatuko dela Gipuzkoan kirol anitzeko jardueretan eskola kiroleko monitore lana egin ahal izateko. Ikastaroa etorkizunean baliozkotzea ere ari dira pentsatzen.

Jose Angel Rialek aipatu du ezen, federazio mailan, gutxieneko titulazio bat eskatzen dela nazio mailan; uste du prestakuntza hau beste sistema horren kontra joango litzatekeela.

Fernando Urienek aipatu du ezen, eskola esparruan, sistema desberdina dela, eta ikasturte honek monitoreak prestatzeko bidea zabaltzen duela.

Iñaki Ugarteburuk erantzun du Eusko Jaurlaritza modalitatez modalitate joango dela, bakoitzerako akordioak eginez.

Arkaitz Angiozarrek balorazio positiboa egin du Oarsoaldean monitoreek ikastaro pilotuan izandako jarraipenari dagokionez. Proposatu du ezen, etorkizunean baliozkotzea ez bada posible,



ikasgaietako batzuk “arintzea”. Balorazio positiboa egin du, halaber, monitoreen eta ikastaroko irakasleen artean lortzen ari den komunikazioaren gainean.

Tetxus Barandiaranek interesgarri iritzi dio ikastaroari, hastapeneko jardueri dagokienez, eta interesa erakutsi du halaber federazioko teknikariek horretan parte har dezaten. Ordutegiei eta praktikei buruz galdetu du.

Imanolek erantzun du ezen, alderdi teorikoari dagokionez, online ikastaro bat izanik ez dagoela ordutegi finkorik, baizik eta gutxi gorabeherako data batzuk markatzen dituen egutegi bat eta edukiak banatuta dauden lau moduluetakako bakoitza egiteko mugako data batzuk. Praktikei dagokienez, planteamendua da kontzeptu teoriko garrantzitsuenak finkatzeko eta entrenamenduetan zein lehiaketetan behar bezala aplikatzeko balio izatea. Etorkizuneko edizioetan, aurreikusten da monitoreentzako ikastaroak urrian hastea eta praktikak eskolaumeen ikasturtean zehar garatu ahal izatea.

Beatriz Menak galdetu du nor izango diren praktiken arduradunak.

Imanolek erantzun du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziadunak izango direla. E.1 ereduaren garapenean jada baden egitura teknikoa baliatu nahi da: eskola edo eskualde mailako koordinatzaileak, bere ikastetxe edo eskualdeetako monitoreen artean dagoeneko funtzio pedagogikoak garatzen ari direnak berak.

Juan Karlos Etxeberriak uste du ezen, agian, horixe dela gutxien behar duen jendea, egitura garatu bat baitute dagoeneko.

Imanolek erantzun du esperientziak ezetz dioela, prestakuntza defizit garrantzitsuak detektatu direla.

5) *Eskola kiroleko mugikortasun iraunkorraren plana.*

Iñakik azaldu du sentsibilizazio kanpaina bat jarri dela martxan. Azterketa bat egin, eta ikusi zuten eskola kirolean bidaiak batez ere auto partikularrak erabiliz egiten direla, ez direla ez garraio publikoa ez kolektiboa erabiltzen. Ohitura hori aldatu nahi dute pixkanaka, arriskua eta kutsadura atmosferikoa murriztearren.

Horretarako aplikazio informatiko bat prestatuko da, garraio kolektibo diskrezionaleko ibilbideak sortu eta garraio publikoaren erabilera sustatu ahal izatearren. Lurraldebus-en adibidea jarri du, hamar urte bitarte doakoa baita erabilera. Eragileek mugikortasun planak presta ditzaten ere bultzatu nahi dute, laguntzen bidez.

Igeriketa Federazioaren esperientzia pilotua jarri du adibide.

Fernando Urienek proposatu du Lurraldebus-en doakotasun hori hamabi urte arte luzatzea, eta Euskotren-era ere eramatea.

Iñaki Ugarteburuk erantzun du landuko dutela gaia, eta Euskotren-i dagokionez, berriz, erantsi du hori Lurraldebus-en sartzeari aurreikusita dagoela.

Tetxus Barandiaranek aipatu du ezen Mendi Federaziotik hainbat urte daramatzatela, bere jardueretako partaideei eskatuz garraio publikoa erabil dezatela, eta uste du beste neurri



batzuekin osatu ezean horrek ez duela balio. Galdetu du Mendi Federaziorako proposamenik ba ote den.

Iñakik erantzun dio Igeriketa Federazioaren eredia mendiko jardueretara eraman nahi dutela.

Beatriz Menak proposatu du talde bonoak egitea. Proposamena aktan jasotzea erabaki dute.

Imanolek azaldu du bizikletaren erabilera ere sustatu nahi dutela, tarte txikietarako, kimu mailan (udaberrian eta udazkenean). Datorren astean martxan jarriko dute plan pilotu bat Tolosan. Modu antolatu batean egin nahi dute, beraz eskolaumeak zein lehiaketa taldeen arduradunak prestatuz. Datorren ikasturterako ahalegina egingo da bide azpiegitura (bidegorriak) dagoen eta 5 kilometro inguruko desplazamenduak behar dituzten lehiaketak antolatzen diren zonetan hasteko (Debagoiena, Goierri Garaia, Iraurgi).

6) *Euskadiko errendimendu txapelketak – Euskadiko Jokoak.*

Imanolek aipatu du Euskadiko Jokoak maiatzaren 28 eta 29an eta ekainaren 4an egingo direla, iazko modalitate berberak mantentzen direla eta Gasteizen izango direla, piraguismoaren kasuan izan ezik, hau Legution izango baita.

Berrikuntza da data horietan egingo direla errendimenduan hasteko Euskadiko Txapelketak, Jokoen antolaketa azpiegitura baliatuta. Lehiaketa horiek esku pilotan eta gizonezkoen futboleant egingo dira, eta gizonezko zein emakumezko saskibaloian, bai haur mailan bai kimu mailako 2. urtean.

7) *Beste hainbat kontu.*

Arkaitz Angiozarrek hainbat galdera egin ditu. Batetik, joan den martxoaren 23an Kiroletaren antolatutako E1 lantegiko konklusioak zertan diren galdetu du, eta konklusio horien arabera beste pausorik egiteko asmorik dagoen.

Imanolek erantzun du ezen, lan karga gehiegizkoa dela eta, oraindik ez zaiela beharrezko dokumentazioa bidali lantegi horretako partaideei. Uste du bi aste epean bidaliko direla konklusioak, eta horien gainean ekarpenak egiteko epe bat irekiko da.

Hurrena erantsi du lantegiaren helburua dela ikustea non gauden E.1 antolaketa eredia ezarri zenetik hogeituro urteko eskarmentua bildu eta gero, eta eredu horretan murgildutako eragileekin kontsentsu batera iristeko ahalegina egitea halaber, batetik eredia gaurkotzera eta bestetik lurralde osoan antzeko ezarpen bat lortzera begira. Lantegiko gogoetak EAEko eskola kirolaren etorkizuneko eszenatoki posibleei buruzko gogoeta prozesuaren paraleloan doaz, eskola kirolaren euskal eredia hiru lurraldeetan homogeneizatzen begira. Ildo honetatik, Araba eta Bizkaiarekin eszenatoki egokienaren inguruko kontsentsu bat lortzea espero da.



Arkaitzek aipatu egin du aurreko bilkuraren aktan Iñaki Ugarteburuk emandako erantzun bat, zehazki baitzioen “kirol eskolak eskola kirolaren osagarri gisa planteatzen” direla, eta galdetu du hori izan den, edo futbol federatuaren munduak ezarritako presioa bestela, eskolak arautzeko arrazoia.

Iñaki Ugarteburuk erantzun du bere erantzunari eusten diola. Uste du hobe dela eskolak arautzea, horiek bere kasa ibiltzea baino.

Arkaitzek jarraitu du hainbat eragilek federazioen eginkizunei buruz duten iritzia emanez. Uste dute ezen, eskola kirolari dagozkion adin tartetan, federazioak zerbitzu-hartzaileak direla eta, hala eta guztiz, batzuetan oztopoak jartzen dituztela alderdi teknikoetan aldaketa batzuk egiteko unean: egutegietako aldaketak etab.

Iñaki Ugarteburuk erantzun du bere asmoa, hasieratik beretik, inoren kontra ez jardutea izan dela, eta denekin akordioak lortzen saiatzea. Federazioen laguntza teknikoa kontratatzen da eskola kirolerako, ahalik eta eragile kopururik handiena inplikatzearren.

Honi dagokionez, Pedro Etxarrik erantzun du ezen, bere kasuan, federazioak bakar-bakarrik klub, ikastetxe eta abarren artean erreklamazioak dauden kasuetan hartzen duela parte. Uste du haiek direla lehenik ados jarri behar dutenak.

Fernando Urien kezkatuta agertu da, zonako kirol eskolen egoera dela eta. Uste du futbol eskola baterako baimena lortzeko eskaera bat aurkeztu dela, baina ikastetxeek ez dute horren berri.

Imanolek erantzun du esanez adostasuna agertzen duen udal zinegotziaren jakinarazpen bat jaso dutela. Iaz funtzionatzeko baimena eman zieten, eta aurten ez zaie luzapena baimendu, toki batzarraren oniritzia lortu ez dutelako. Zinegotziak batzar horretatik kanpo izan duen esku hartze horrek nahasmen puntu bat erantsi dio prozedurari. Gaiari berriro helduko diote.

Ramon Mujikak galdetu du kirol eskolen luzapena orokorra izan den.

Imanolek erantzun du normaltasunez eman dela kasu guztietan, Zarautzen kasuan izan ezik.

Pako Urrestarazuk aipatu du Goierri inguruan igeriketa eta gimnasiak jarraitzen dutela larunbat goizetan jarduerak garatzen. Hurrena erantsi du txirrindularitzan ere benjamin mailako lehiaketak egiten ari direla larunbatetan.

Imanolek erantzun du gimnasiaren kasuan gauza puntuala izan dela, beste egun batzuetan instalazio librerik lortzeko zailtasunagatik, eta igeriketaren kasuan aurten bi aldiz gertatu dela, egutegi kontuak tarteko. Txirrindularitzari dagokionez, erantzun du federaziotik helarazi diotela hori ez dela horrela; berriro komentatzeko apuntatu du.



Eta, aztertzeko beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 19:45ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria

BORRADOR